

## **"Substantziarik gabeko adikzioen egungo egoera: ausazko jokoak eta kirol-apustuak" ikastaroaren balorazioa**

**Gazteen Euskal Behatokiak maiatzean formakuntza planeko beste ikastaro bat antolatu du**

**'Substantziarik gabeko adikzioen egungo egoera: ausazko jokoak eta kirol-apustuak'** ikastaroaren bi edizio antolatu ditu Gazteen Euskal Behatokiak maiatzean zehar. Formazio honen helburu nagusia izan da, gizarte-eragileei informazioa eta prestakuntza ematea ausazko jokoekin (batez ere kirol-apustuekin eta on-line jokoekin) eta sare sozialekin lotutako arriskuei buruz.


Ikastaroa **Estibaliz Ansotegi Guruziagak** eman du, Psikologiako lizentziaduna Ortzadarren osasun-eta adikzio-arloko prebentzioari buruzko programaren koordinatzailea.

**19 lagunek** partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 41, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 41 hezkuntza aratuari lotutako lagunak izan dira.
- Azkenik, % 18k bestelako soslai profesionalak zituzten.

Ikastaroak 12 orduko iraupena izan du, hiru egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

### **Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)**



**Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta**